

Prentsa ohar labur honen bitartez, ikasturte osoan zehar ikasle zein gazte mugimenduko hainbat kidek pairatu duten jazarpen poliziala salatzen dugu. Euskal Herrian aski ezagunak ditugu militante politiko independentista eta sozialisten aurkako mota guztietako erasoak. Atxiloketak, espetxeratzeak, tortura eta jarraipen zein jazarpen etengabea. Azken hamarkadan testuinguru politikoan aldaketak eman diren arren, eta gazte militante konprometituen ekinbidea nabarmen aldatu bada ere, estatuak eta bere botere estrukturak etekinaren logika itsutik haratago doan edozein ekinbide politiko onartezintzat dute. Horrenbestez, Euskal Herriaren askapenaren eta jendarte sozialista baten aldeko lan politikoak ez du inongo berme juridikorik eta isilpean kontrolatua eta erasotua jarraitzen du. Alderdi politiko nagusiak eta komunikabide ofizialak bakegintzaz mintzo diren garaiotan, nabarmentzekoak dira *gizarte ofizialaren* bizkarrera militanteok jasaten ditugun jazarpen guztiak. Zentzu honetan, prentsaurreko honetan herri zein langile mugimenduko hainbat kide bildu gara hiru militanteren aurkako jazarpen poliziala salatzeko. Jakitun gara horrelako kasuak ez direla kide hauetara mugatzen. Kasu hauek zabaltzen dabiren eta oso arriskutsua deritzogun dinamika baten adierazpen zehatzak dira.

Salaketa burutzen dugun militanteok lan politiko aktiboa burutzen dugu ikasle zein gazte mugimenduan. Ikas baldintzen defentsan eta unibertsitateko proletario guztien eskubideak defendatuz, euskal preso politikoen ikas baldintzen defentsan, klase feminismoaren alde lan aktibo bat burutuz, gure herrietako gaztetxe eta gazte asanbladetan, langile babes sareetan, gune autogestionatuen babesa antolatuz eta gazte antolakunde sozialistan parte hartuz. Jardun honen aurka eman diren azken urteko gertaeren artean, kalez jantzitako polizien mehatxuak, jarraipenak, xantaiak, kolaborazio eskaerak eta dei anonimoak salatzen ditugu. Denbora luzez errepikatu dira eraso hauek. Modu jarraituan berpizten da poliziaren ezkutuko aktibitatea. Batetik, gazte militantzia beldurtzeko helburu argia dute jazarpen hauek, ezegonkortasuna eta ziurgabetasuna sortzeko asmoa baitute. Bestalde, mehatxu bidez gauzatzen diren kolaborazio eskaerak, informazioa eskuratu eta artxibo errepresiboak osatzeko burutzen dituzte, horretarako gezurra, manipulazioa eta presio psikologikoa erabiliaz. Azkenik, dei anonimoek militanteongan eta gure gertukoengan ezegonkortasuna sortzeko helburua dute.

Behar beharrezkoa iruditu zaigu gertakari hauek publikoki aditzera ematea eta Euskal Herriko agente politiko zein norbanakoei dei egiten diegu pasarte larri hauei ahotsa eman diezaioten, gertaera hauen existentzia gizarteratu dadin. Jakitun gara gizarte kapitalistaren eta bere botere estrukturen zein estatuen menpeko garen bitartean militante iraultzaileon jarduna sistematikoki zigortua izango dela. Horren adibide dira isunak, desalojoak, kriminalizazio etengabea, desinformazioa, errepresio ekonomikoa, kontrol soziala, espetxeratzeak, desestabilizazio psikologikoak eta edonolako presio mekanismoak.

Eraso hauek arbuiatzen ditugu eta eskura ditugun baliabide guztiak erabiliko ditugu militanteon aurkako jazarpenak amaitu daitezen. Bestalde, zapalkuntza nazional eta klase arteko harremanak zeharkatzen dituen testuinguru honetan militantziaren zilegitasuna aldarrikatzen dugu. Dirudenez, oinarrizko askatasun politikoek ez dute lekurik *gizarte politiko ez ofizialean* eta gure zeregina da eraso eta abusua onartezintzat hartu eta langileriaren eskubide zein askatasun politikoen defentsa burutzea.

Doakie gure mespretxurik gogorrena testuinguru zail honetan jendarte aske baten aldeko lan politikoa ezinezko bilakatu nahi duten horiei. Aurrean izango gaituzue.